| | |
|---|---|
| **LANKIDETZA-PROTOKOLOA, KITXUA HIZKUNTZA BIZIBERRITZEKOA, CUSCOKO (PERU) UDAL GOBERNUAREN, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAREN, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN (UPV/EHU) ETA AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER-EN ARTEKOA** | **PROTOCOLO DE COLABORACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DE LA LENGUA QUECHUA ENTRE EL GOBIERNO MUNICIPAL DE CUSCO (PERÚ) Y EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA DEL GOBIERNO VASCO, LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (UPV/EHU) Y AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER** |
| Honako lankidetza-protokolo hau sinatu dute ondoren aipatzen direnek: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren bidez, Hizkuntza Politikako sailburuorde Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro jauna izanda haren ordezkaria, eta egoitza hemen dutelarik: Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastian kalea, 1. zk.a; Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreorde Nekane Balluerka Lasa andreak ordezkatuta, egoitza hemen dutelarik: Leioa, Sarriena auzoa, z/g; Agirre Lehendakaria Center-ek, Agirre Lehendakaria Center-eko zuzendari Juan José Ibarretxe Markuartu jaunak ordezkatuta, egoitza hemen dutelarik: Leioa, Sarriena auzoa, z/g; eta Cuscoko Udal Gobernuak, Carlos Moscoso Perea jaunak ordezkatuta, | Entre el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, mediante la Viceconsejería de Política Lingüística representada por D. Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro, viceconsejero de Política Lingüística, ambos domiciliados en la calle Donostia-San Sebastián nº1, de la ciudad de Vitoria-Gasteiz, la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), representada por Dña. Nekane Balluerka Lasa, vicerrectora de Estudios de Posgrado y Relaciones Internacionales, ambos domiciliados en el barrio Sarriena s/n, del municipio de Leioa, Agirre Lehendakaria Center representada por D. Juan José Ibarretxe Markuartu, director de Agirre Lehendakaria Center, ambos domiciliados en el barrio Sarriena s/n, del municipio de Leioa, y el Gobierno Municipal de Cusco, representado por D. Carlos Moscoso |

| | |
|---|---|
| egoitza hemen dutelarik: Cusipata plaza, Cusco, Peru. | Perea, ambos domiciliados en la Plaza Cusipata, Cusco, Perú, se celebra el siguiente Protocolo de Colaboración. |
| **AINTZAT HARTU DIRA** | **CONSIDERANDO** |
| LEHENA: Kultura- eta hizkuntza-gutxiengoen kultura- eta hizkuntza-garapena gizarte-justiziaren eta kultura-balioespenaren adierazgarria da, bai eta gizarte-trinkotasuna sustatzen duen elkartasun kolektiboaren adierazpidea ere. | PRIMERO: El desarrollo cultural y lingüístico de las minorías culturales y lingüísticas es signo de justicia social y valoración cultural, y es además una manifestación de solidaridad colectiva que fomenta la cohesión social. |
| BIGARRENA: Hizkuntza autoktono edo jatorrizkoen garapen eta sustapenak gizarte-arloko balio erantsi garrantzitsua sortzen du, eta aurrerabidea da, gizarte-trinkotasunean bezala, garapen ekonomikoan ere. | SEGUNDO: El desarrollo y promoción de las lenguas autóctonas u originarias genera un importante valor añadido de dimensión social, y supone un progreso en su cohesión social así como en su desarrollo económico. |
| HIRUGARRENA: Nazioaren Konstituzio Politikoak, 2. artikuluko 19. tartekian, nazioaren aniztasun etniko eta kulturala onartu eta babesten du, eta 48. artikuluan esaten du hizkuntza ofizialak direla gaztelania eta, nagusi diren eremuetan, kitxua, aimara eta gainerako jatorrizko hizkuntzak, betiere legearen arabera. | TERCERO: La Constitución Política de la Nación en el artículo 2, inciso 19 reconoce y protege la pluralidad étnica y cultural de la nación, y en el artículo 48 declara que son idiomas oficiales el castellano y, en las zonas donde predominen, también lo son el quechua, el aimara y las demás lenguas aborígenes, según la ley. |
| LAUGARRENA: Hizkuntzen Lege Nazionalak, 2. artikuluan, printzipio gidari hauek jasotzen ditu:<br>1. Peruko hizkuntza indigenak gizateriaren, herri indigenen eta Peruko nazioaren ondare dira. | CUARTO: La Ley Nacional de Lenguas, en su artículo 2 establece los siguientes principios rectores:<br>1. Las lenguas indígenas del Perú son patrimonio de la humanidad, de los pueblos |

| | |
|---|---|
| 2. Peruko hizkuntza guztiak maila berean daudela onartzen da.<br>3. Estatuaren politika da gaztelaniaz mintzatzen direnek gutxienez hizkuntza indigena bat ere erabiltzea, eta hizkuntza indigenaren bat dakitenek gaztelania ere erabiltzea, bigarren hizkuntza ikasteak inola ere murriztu edo ordeztu gabe ama-hizkuntzaren garapena.<br>4. Herritarrei ez zaie kalterik egin behar, edo ez dira diskriminatu behar, erabiltzen duten hizkuntzaren edo hizkuntza-aldaeraren ondorioz.<br>5. Estatuko komunikabideek konpromiso berezia dute gaztelania ez den hizkuntzetan saioak zabaltzeko, eta haiek ikastea sustatzeko. | indígenas y de la Nación peruana.<br>2. Se reconoce que todas las lenguas del Perú están en pie de igualdad.<br>3. Es una política del Estado que los hablantes de castellano manejen por lo menos una lengua indígena y que los hablantes de lenguas indígenas manejen el castellano, sin que el aprendizaje de la segunda lengua disminuya o reemplace el desarrollo de su lengua materna.<br>4. Ningún ciudadano debe sufrir perjuicio o ser objeto de discriminación como resultado de la lengua o de la variedad de una lengua que hable.<br>5. Los medios de comunicación estatales están especialmente comprometidos para difundir programas en idiomas diferentes del castellano y para potenciar su aprendizaje. |
| BOSGARRENA: Euskara Sustatzeko Ekintza Planak, kanpo-proiekzioaren esparruari begira, hizkuntza zabaltzen lan egiten duten eragileekiko lankidetza areagotzea aurreikusten du, besteak beste, lankidetza-hitzarmenak eginez. | QUINTO: El Plan de Acción para la Promoción del Euskara (ESEP) prevé para el ámbito de la proyección externa aumentar la colaboración con los agentes que trabajen en el ámbito de la proyección de las lenguas, a través, entre otros, de acuerdos de colaboración. |
| SEIGARRENA: 2013-2016ko Euskararen Agenda Estrategikoak, | SEXTO: La Agenda Estratégica del Euskera 2013-2016 aprobada por el |

| | |
|---|---|
| zeina Eusko Jaurlaritzak onartu baitu, nazioarteko lankidetzaren esparruan hizkuntza-lankidetzaren kontzeptua garatzea aurreikusten du, munduko hainbat tokitan gutxitze-egoeran dauden tokian tokiko eta berezko hizkuntzak berreskuratu eta biziberritzeko egiten ari diren esperientziei ekarpenak egiteko, eta prozesu horietatik ikasteko. | Gobierno Vasco prevé desarrollar el concepto de cooperación lingüística en el campo de la cooperación internacional, para así realizar aportaciones a las experiencias que se están llevando a cabo para recuperar y revitalizar los idiomas locales y propios en situación de minorización en diversas partes del mundo, así como para aprender de tales procesos. |
| ZAZPIGARRENA: Eusko Jaurlaritzak lankidetza-protokoloak izenpetu ditu nazioartean zenbait erakunderekin; besteak beste:<br>- 1998ko otsailaren 3an, Eusko Jaurlaritzak eta Txileko Nazioarteko Lankidetza Agentziak Lankidetzari buruzko Akordio Memoranduma izenpetu zuten, beren herrien ekonomia-, industria-, teknologia-, hezkuntza-, kultura- eta gizarte-garapena sustatu eta babesteko.<br>- 2005eko abenduaren 15ean, 0562 zk.ko Dekretu Salbuetsiaren bidez, Lankidetzari buruzko Akordio Memoranduma onartu zen Hizkuntza esparruan, eta 2005eko azaroaren 10ean izenpetu, Txileko Plangintza Ministerioko Idazkariordetzaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren artean. | SÉPTIMO: El Gobierno Vasco ha suscrito protocolos de colaboración a nivel internacional con diferentes instituciones, entre otros:<br>- Con fecha 3 de febrero de 1998, el Gobierno Vasco y la Agencia de Cooperación Internacional de Chile suscribieron un Memorándum de Entendimiento sobre Cooperación, con la finalidad de promover y apoyar el desarrollo económico, industrial, tecnológico, educativo, cultural y social de sus pueblos.<br>- Con fecha 15 de diciembre de 2005, mediante Decreto Exento N° 0562, se aprueba Memorándum de Entendimiento sobre Cooperación en el área Lingüística, suscrito con fecha 10 de noviembre de 2005, entre la Subsecretaria del Ministerio de Planificación de Chile y el Departamento de |

| | |
|---|---|
| | Cultura del Gobierno Vasco. |
| - 2007ko uztailaren 31n, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta CONADIk Lankidetza Memorandumerako Asmoen Protokoloa izenpetu zuten, Txileko eta Euskadiko hizkuntza-politika, -plangintza eta -sustapeneko sistemen arteko loturak estutzeko, eta, horrenbestez, aldeen arteko lankidetzak bi herrialdeen artean hizkuntza-esparruan dagoen harremana hobetzen laguntzeko. | - Con fecha 31 de Julio de 2007, el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco y CONADI suscribieron un Protocolo de Intenciones para el Memorándum de Cooperación, con el objeto de estrechar los vínculos entre los sistemas de promoción, planificación y política lingüística de Chile y de Euskadi, al objeto de que la cooperación entre las partes contribuya a mejorar la interrelación entre ambos países en materia lingüística. |
| - 2008ko otsailaren 20an, Eusko Jaurlaritzak eta Kolonbiako Kultura Ministerioak Lankidetza Protokoloa sinatu zuten, Kolonbiako eta Euskadiko hizkuntza-politika, -plangintza, -dokumentazio, -ikerketa eta -sustapeneko sistemen arteko loturak estutzeko, eta, horrenbestez, bi herrialdeen artean hizkuntza-esparruan dagoen lankidetza eta harremana hobetzeko, eta beren dibertsitate etniko eta kulturalak indartu eta biziberritzeko. Protokolo hori indarrean dago. Protokolo horren helburuez beste lankidetza-protokolo bat izenpetu zuten Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kolonbiako Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak 2012ko uztailaren 19an. | - Con fecha de 20 de febrero de 2008, el Gobierno Vasco y el Ministerio de Cultura de Colombia firmaron un Protocolo de Colaboración para estrechar los vínculos entre los sistemas de promoción, investigación, documentación, planificación y política lingüística de Colombia y Euskadi, con el fin de mejorar la cooperación e interrelación entre ambos países en materia lingüística y fortalecer y revitalizar sus diversidades étnicas y culturales. Dicho protocolo se encuentra vigente. Los objetivos de dicho protocolo fueron objeto de otro protocolo de cooperación suscrito entre el Departamento |

| | |
|---|---|
| - 2015eko urtarrilaren 16an, Eusko Jaurlaritzak eta Txileko Garapen Indigenarako Korporazioak (CONADI) Akordio Memorandumerako Asmoen Protokoloa izenpetu zuten, Txileko eta Euskadiko hizkuntza-, hezkuntza- eta kultura-politikaren hobekuntzarako lankidetza teknikoan dauden loturak estutzeko, eta, horrenbestez, bi herrialdeen arteko harremana hobetzeko elkarrekiko lankidetzaren bidez, eta informazio-trukea eginez, baliagarria izan dadin euskara sustatzeko, eta Txileko herri indigenen hizkuntzak garatzeko.<br>- 2015. urtearen hasieratik, lankidetza praktikoa izaten ari da Peruko Gobernuko Hizkuntza Zuzendaritzarekin, baina oraindik ez da lankidetza-protokolorik formalizatu. | de Cultura del Gobierno Vasco y el Ministerio de Educación Nacional de Colombia el 19 de julio de 2012.<br>- El 16 de enero de 2015, el Gobierno Vasco y la Corporación Nacional de Desarrollo Indígena (CONADI) suscribieron un Protocolo de Intenciones para el Memorándum de Entendimiento, con el propósito de estrechar los vínculos de cooperación técnica para la mejora en materia de política lingüística, educativa y cultural de Chile y de Euskadi, con el objetivo de mejorar la interrelación entre ambos mediante la cooperación mutua, y que conlleve un intercambio de información aplicable a la promoción del euskera y al desarrollo de las lenguas de los pueblos indígenas de Chile.<br>- Desde principios de 2015 se está desarrollando una colaboración práctica con la Dirección de Lenguas del Gobierno de Perú, aunque no se haya formalizado aún un protocolo de colaboración. |
| ZORTZIGARRENA: Eusko Jaurlaritza da Euskadiko hizkuntza-politika taxutzeko, zuzentzeko eta bultzatzeko eskumena duen | OCTAVO: El Gobierno Vasco es la institución competente en materia de diseño, dirección e impulso de la política lingüística desplegada en |

| | |
|---|---|
| erakundea, eta politika horretan parte-hartzaile dira erakunde publiko guztiak eta ondo trebatutako askotariko gizarte-eragile ugari. Kanpo-jardunari dagokionez, Eusko Jaurlaritza, Etxepare Euskal Institutuaren bidez, euskara eta euskal kultura mundu osoan zabaltzeko lan egiten ari da, hau da, euskal kulturaren adierazpide esanguratsuenak unibertsal bihurtzen ari da, eta Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren bidez, alde batetik, hizkuntza-lankidetza garatzen ari da nazioartean, hizkuntzaren biziberritze eta normalizazioaren esparruan, eta, bestetik, Europan, bereziki Europar Batasuneko erakundeetan, hizkuntza-aniztasuna zaindu eta sustatzeko politika taxutzen eta kudeatzen ari da. | Euskadi y participada por el conjunto de las instituciones públicas y una amplia y experimentada diversidad de agentes sociales. En el plano de la acción exterior, el Gobierno Vasco, a través del Instituto Vasco Etxepare, trabaja en la difusión de la lengua y la cultura vascas por todo el mundo, es decir, universalizar las expresiones más significativas de la cultura vasca, y a través de la Viceconsejería de Política Lingüística viene desarrollando, por una parte, la cooperación lingüística a escala internacional en materia de revitalización y normalización lingüística, y, por otra, el diseño y gestión de la política dirigida a preservar y fomentar la diversidad lingüística en Europa especialmente en el ámbito de las instituciones de la Unión Europea. |
| BEDERATZIGARRENA: Agirre Lehendakaria Center-en xedea ikertzea, berritzea eta ezagutza zabaltzea da, euskal gizartea eraldaketa sozio-ekonomikoaren eredu arrakastatsu gisa agertzea ahalbidetu duten erabakiak eta proiektuak nazioartean balioetsi eta partekatzeko, hala nola giza garapen jasangarria sustatzeko, betiere ulertuta hura zenbait balio, politika eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza-hitzarmen jakinek osatzen dutela, aukera ematen baitute gizarteak etorkizun orekatua eraikitzeko gizartearen eta | NOVENO: Agirre Lehendakaria Center tiene como objetivo la realización de actividad investigadora, innovadora y de difusión de conocimiento para poner en valor y compartir internacionalmente el conjunto de decisiones y proyectos que han permitido a la sociedad vasca proyectarse como un modelo exitoso de transformación socio-económica, así como para impulsar el Desarrollo Humano Sostenible, entendido como el conjunto de valores, políticas y proyectos de colaboración público-privada que permiten a una sociedad construir su futuro de forma |

ekonomiaren ikuspuntutik, ingurumena errespetatzeko eta giza eskubideen aldeko jarrera izateko.

Dudarik gabe, euskara eta euskal kultura berreskuratu eta sustatzea izan da euskal gizartearen eraldaketan izandako egitate funtsezkoenetako bat. Alde batetik, lankidetza-protokolo honetako lehen eta bigarren puntuetan adierazten den bezala, gizarte elebidunaren alde egitea estrategikoa da gure gizartearen elkarbizitzarako. Bestalde, euskara sustatu eta garatzearen ondorioz, "euskararen kasua" presente dago hizkuntza minorizatuak biziberritzeaz diharduten nazioarteko foroetan.

Horregatik Agirre Lehendakaria Center beste lan-ildo bat garatzen ari da esku hartzeko dauzkan proiektuen barruan, hainbat herrialde eta eskualdetako hizkuntza minoritarioen berreskurapenean oinarrituta. Erakunde kulturalekin eta akademikoekin lankidetzan aritzea da xedea, euskararen berreskurapenean izandako euskal esperientzia partekatzeko, Euskadin hizkuntza sustatzeko gauzatutako planak erreferentzia gisa hartuta. Gaur egun, Mexikoko Iberoamerikar Unibertsitatearekin eta Ayuuk Kultura-arteko Goi Mailako Institutuarekin (ISIA) lankidetzan aritzea aztertzen ari da, mixe hizkuntza biziberritzeko Oaxacako eskualdean (Mexiko).

equilibrada socio-económicamente, respetuosa con el medio ambiente y comprometida con los Derechos Humanos.

Indudablemente la recuperación y la promoción de la lengua y la cultura vasca ha sido uno de los hechos fundamentales de la transformación de la sociedad vasca. Por una parte, tal como se recoge en los puntos primero y segundo del presente protocolo de colaboración, la apuesta por una sociedad bilingüe es un elemento estratégico para la convivencia en nuestra sociedad. Por otra parte, la promoción y el desarrollo del euskera ha supuesto el que "el caso de la lengua vasca" esté presente en los foros internacionales en los que se trata de la revitalización de las lenguas minorizadas.

Por ello, el Agirre Lehendakaria Center desarrolla una nueva línea de trabajo dentro de sus proyectos de intervención, basada en la recuperación de lenguas minoritarias en diferentes países y regiones. El objetivo es colaborar con diferentes instituciones culturales y académicas para compartir la experiencia vasca en la recuperación del Euskera, tomando como referencia los planes de promoción lingüística llevados a cabo en Euskadi. Actualmente está analizando la cooperación con la Universidad Iberoamericana de México y con el Instituto Superior Intercultural Ayuuk (ISIA) para la revitalización de la lengua Mixe en la

| | |
|---|---|
| | región de Oaxaca (México). |
| HAMARGARRENA: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), bere irakasleen artean, soziolinguistikan eta hizkuntzalaritzan esperientzia handia duten katedradunak dauzka, doktore-tesiak eta ikerketa-proiektuak zuzendu dituztenak besteak beste gai hauek ikergai izanda: ukipen-hizkuntzak, hizkuntza minorizatuak biziberritzea, hizkuntza baten corpusaren plangintza, haren estatusaren plangintza eta hizkuntza eskuratzearen plangintza. Ildo berean, Hizkuntza Politiken eta Plangintzaren arloko Unibertsitate Masterra ematen hasi da, Cuscoko San Antonio Abad Unibertsitate Nazionalean (UNSAAC), besteak beste ikasleak gaitzeko, ikerketak egin ditzaten hizkuntza-politikarekin zerikusia duten arlo ugarietan, eta hizkuntza minoritario bat biziberritzeko atazak presta eta/edo haietan parte har ditzaten. Bestalde, UPV/EHUko Euskararen Institutuak corpora eta sare-hiztegiak egin ditu, eta haiek erreferenteak dira teknologia berriak hizkuntza minoritario bat biziberritu eta modernizatzeko nola erabili ikasteari dagokionez. Era berean, lankidetza-protokolo honen | DÉCIMO: La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) cuenta entre su profesorado con catedráticos con amplia experiencia en el área de la Sociolingüística, y de la Lingüística que han dirigido tesis doctorales y proyectos de investigación sobre temas relacionados con lenguas en contacto, revitalización de lenguas minorizadas, la Planificación del Corpus de una lengua, la Planificación de su Estatus o la Planificación de la Adquisición de una lengua. En la misma línea, ha comenzado a impartir un Máster Universitario en Políticas Lingüísticas y Planificación en la Universidad Nacional San Antonio Abad (UNSAAC) de Cusco, entre cuyos objetivos figura capacitar al alumnado para que pueda llevar a cabo investigaciones en las múltiples áreas implicadas en una Política Lingüística, así como diseñar y/o participar en tareas de revitalización de una lengua minoritaria. Por otra parte, el Instituto de Euskara de la UPV/EHU ha desarrollado corpora y diccionarios en red que son referentes de cómo utilizar las nuevas tecnologías en la revitalización y |

| | |
|---|---|
| ondorioetarako, aipagarria da UPV/EHUko IXA ikerketa-talde finkatua, hizkuntza naturalaren prozesamendua ikertzen baitu, bai eta teknologia berriak hizkuntza minoritarioak biziberritzeko erabiltzea ere. Haren proiektuen artean, teknologia berriekin eta kitxua hizkuntzarekin zerikusi zuzena duten bi proiektu nabarmentzen dira ("RUNASIMI. Kitxua hizkuntzaren prozesamendu automatikorako oinarrizko baliabideak: datu-base lexikoa eta testu-korpusa" proiektua; eta "Lehen urratsak kitxuaren prozesamendu automatikoan. Corpusa, morfologia eta lexikoa" proiektua). UPV/EHUk, lankidetza-protokolo honen xedearen ondorioetarako, ikerketa-lan horren guztiaren ekarpena egingo du, bai lan teorikoarena, bai nagusi den hizkuntza koofizialetik linguistikoki oso urrun dagoen hizkuntza minoritario batean egindako aplikazioarena. | modernización de una lengua minoritaria. Asimismo, a los efectos del presente Protocolo de Colaboración, es de mencionar el grupo de investigación consolidado IXA de la UPV/EHU, que investiga sobre el procesamiento del lenguaje natural y sobre la utilización de las nuevas tecnologías para la revitalización de las lenguas minoritarias. Entre sus proyectos, destacan dos directamente relacionados con las nuevas tecnologías y la lengua quechua (el proyecto "RUNASIMI. Recursos básicos para el procesamiento automático de la lengua quechua: base de datos léxica y corpus textual" y el proyecto "Primeros pasos en el procesamiento automático del quechua. Corpus, morfología y léxico"). La UPV/EHU aportará, a efectos del objeto del presente Protocolo de Colaboración, todo este trabajo de investigación tanto teórica como aplicada a una lengua minoritaria muy alejada lingüísticamente de la lengua cooficial dominante. |
| HAMAIKAGARRENA: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren, Agirre Lehendakaria Center-en eta UPV/EHUren ustez, proiektu hau | UNDÉCIMO: la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, el Agirre Lehendakaria Center y la UPV/EHU contemplan este proyecto como un proyecto piloto |

| | |
|---|---|
| aitzindaria da, eta erreferentzia izan beharko luke beste udalerri eta/edo barruti batzuentzat, eta, oro har, Cuscoko eskualde osoarentzat. | que debería ser referente para otros municipios y/o distritos y, en general, para toda la Región de Cusco. |
| **ERABAKI DUTE** | **ACUERDAN** |
| Lankidetza-hitzarmen hau izenpetzea, kitxua hizkuntza biziberritzen laguntzeko Cuscoko udalerrian, Cuscoko eskualdean. | Suscribir el presente Protocolo de Colaboración, con el propósito de contribuir a la revitalización de la lengua quechua en Municipalidad de Cusco de la región de Cusco. |
| **KLAUSULAK:** | **CLÁUSULAS** |
| LEHENA: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak eta Agirre Lehendakaria Center-ek aholkularitza- eta laguntza-lana egingo dute Cuscoko Udal Gobernuarekin, kitxua hizkuntza biziberritzeko plan baten prestaketan, eta horretarako erreferentzia Euskadiko udalerri askotan azken hamarkadan onartutako udal-planak eta Eusko Jaurlaritzak onartutako 2013-2017rako Euskararen Agenda Estrategikoa izango dira. Plan horrek helburu estrategikoak eta gauzatu ahal izateko egin beharrekoak jasoko ditu, bai eta zenbat iraungo duen ere. | PRIMERA: La Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco y Agirre Lehendakaria Center asesorarán y colaborarán con el Gobierno Municipal de Cusco en la elaboración de un Plan de Revitalización de la Lengua Quechua, tomando como referencia los planes municipales aprobados en la última década en numerosos municipios de Euskadi, así como la Agenda Estratégica del Euskera 2013-2017 aprobada por el Gobierno Vasco. Dicho plan recogerá los objetivos estratégicos y las acciones a desarrollar para su cumplimiento, así como la duración del mismo. |
| BIGARRENA: Horretarako, kitxuaren egoeraren lehen diagnostikoa egin beharko da, bai udalean, bai udalerrian. | SEGUNDA: A tal efecto, se deberá realizar un primer diagnóstico sobre la situación del quechua tanto dentro del ayuntamiento como en el municipio. |

| | |
|---|---|
| HIRUGARRENA: Lantaldeak eratuko dira, eta haietan ordezkatuta egongo dira kitxua biziberritzeko prozesuan parte hartzeko prest dauden herritarren edo elkarteen ordezkariak eta agintariak, aztertzeko zer esparrutan den egingarria zenbait jarduera egitea biziberritze horretan laguntzeko erabilera esparru guztietan (udaletxean bertan, hezkuntza-munduan, aisialdian, ostalaritzan, merkataritzan...). | TERCERA: Se formarán grupos de trabajo en los que habrá representantes de las autoridades y representantes de asociaciones o ciudadanos que estén dispuestos a participar en un proceso de revitalización del quechua, para analizar los ámbitos en los que se vea factible establecer una serie de acciones que contribuyan a dicha revitalización en los diferentes ámbitos de uso (en el propio ayuntamiento, en el mundo educativo, en las actividades de ocio, en la hostelería, en el comercio…). |
| LAUGARRENA: Kitxua Hizkuntza Sustatzeko Batzordea eratuko da, Udalak gainbegiratuta, eta hizkuntza biziberritzearen alde dauden talde guztiak hartan egongo dira ordezkatuta. | CUARTA: Se constituirá una Comisión para el Fomento de la Lengua Quechua, bajo la supervisión del ayuntamiento, en la que estén representados todos los colectivos comprometidos con la revitalización de la lengua. |
| BOSGARRENA: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak eta Agirre Lehendakaria Center-ek, ukipen-hizkuntzekin, hizkuntza minorizatuak biziberritzearekin eta abarrekin zerikusia duten gaiak landu dituzten UPV/EHUko Linguistikako eta Soziolinguistikako adituekin batera, mintegiak eta hitzaldiak emango dituzte hizkuntza minoritarioak biziberritzeari buruz, jarritako helburuak hobeto lortzen laguntzeko. | QUINTA: La Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco y Agirre Lehendakaria Center, conjuntamente con los expertos en Lingüística y en Sociolingüística de la UPV/EHU que se han ocupado de temas relacionados con lenguas en contacto, revitalización de idiomas minorizados, etc. ofrecerán seminarios y conferencias sobre la revitalización de las lenguas minoritarias que contribuyan a la mejor consecución de los objetivos establecidos. |

| | |
|---|---|
| SEIGARRENA: San Antonio Abad Unibertsitate Nazionalean (UNSAAC) UPV/EHUren Hizkuntza Politiken eta Plangintzaren arloko Unibertsitate Masterrean aritu diren edo ari diren ikasleen lankidetza izan ahal izango da; izan ere, laguntza emango dute Cuscoko Udal Gobernuan kitxua biziberritzeko plana egiteko, hala nola eratzen diren kitxua-batzordeak dinamizatzeko. | SEXTA: Se podrá contar con la colaboración de quienes hayan cursado o estén cursando el Máster en Políticas Lingüísticas y Planificación de la UPV/EHU en la Universidad Nacional San Antonio Abad (UNSAAC), que ayudarán en la elaboración del Plan de Revitalización del Quechua en el Gobierno Municipal de Cusco, así como en la dinamización de las Comisiones del Quechua que se constituyan. |
| ZAZPIGARRENA: Lankidetza-protokolo honen helburuak zehazteko, parte hartzen duten erakundeek hitzartu dute proiektu, helburu, jarduera edo ekimen bakoitza kasuan-kasuan itundutako espezifikazioen arabera erabaki eta programatuko dela, alde guztien onespena izan behar duela, eta alde bakoitzak zer betebehar izango dituen zehaztu behar dela. | SÉPTIMA: Para la concreción de los objetivos del presente Protocolo de Colaboración, las instituciones partes convienen en que cada proyecto, meta, actividad o iniciativa, serán acordados y programados conforme a las especificaciones que en cada caso se convengan y deberán contar con la aprobación de todas las partes determinando las obligaciones que asume. |
| ZORTZIGARRENA: Lankidetza-protokolo hau arautze-esparrua da, eta egiazko harremanak sustatzea du xede, elkarren onurarako, bai eta alde sinatzaileen artean lotura estuagoa eta iraunkorragoa sortzea ere. | OCTAVA: El presente Protocolo de Colaboración constituye el marco regulatorio, cuyo fin es promover auténticas relaciones con beneficio mutuo y establecer un vínculo más estrecho y permanente entre las partes firmantes. |
| BEDERATZIGARRENA: Tresna hau dela eta erabakitako proiektuak, programak eta jarduerak gauzatzeko, esku hartzen duten erakundeek arduradun edo kontraparte teknikoa izendatu beharko dute, tresna | NOVENA: Con el fin de llevar a cabo proyectos, programas y actividades que se establezcan en mérito del presente instrumento, las instituciones partes procederán a nombrar, en un plazo no superior a |

| | |
|---|---|
| izenpetu eta gehienez ere hogeita hamar (30) eguneko epean, erakunde bakoitzarentzat indarrean dagoen lege-araudiaren arabera. Era berean jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta batzordekideak alde guztien ordezkariak izango dira, are kontraparte teknikoenak ere; batzordekideen kopurua erabaki egin beharko da, eta batzordearen lana izango da Lankidetza Protokoloan hartutako konpromisoen garapen ona bermatzea, eta erabakitzea aurreko horretarako zer neurri hartu behar dituen aldeetako bakoitzak. Jarraipen-batzordea, kideek izango duten harreman iraunkorraz gain, urtean behin bilduko da gutxienez, eta bilera hori txandaka egin liteke Perun eta Euskadin. | treinta (30) días a contar de la fecha de su suscripción, a un(a) encargado(a) o contraparte técnica, de acuerdo a la normativa legal que rige para cada institución. Así mismo, se constituirá una comisión de seguimiento integrada por representantes de todas las partes en un número que se determine, incluidas las contrapartes técnicas, que se ocupará de garantizar el buen desarrollo de los compromisos adquiridos en el Protocolo de Colaboración, y de determinar las medidas que a tal fin cada una de las partes debe llevar a cabo. La comisión de seguimiento además de la relación permanente que mantengan sus miembros, celebrará al menos un encuentro anual, el cual podría celebrarse de manera alternativa en Perú y en Euskadi. |
| HAMARGARRENA: Lankidetza-protokolo honek bi (2) urteko indarraldia izango du izenpetzen denetik, eta beste bi urtez berrituko da tazituki eta ondoz ondo, aldeetako batek idatziz eta gutxienez muga-eguna baino laurogeita hamar (90) egun lehenago amaitu nahi duela adierazi ezean. | DÉCIMA: El presente Protocolo de Colaboración tendrá una vigencia de dos (2) años, contados desde la fecha de su suscripción, y se renovará tácita y sucesivamente por igual período, salvo que algunas de las partes exprese su voluntad de ponerle término, por escrito, con una antelación mínima de noventa (90) días a la fecha de su vencimiento. |
| HAMAIKAGARRENA: Urtean bilera bat egingo da gutxienez, jarraipena egin, informazioa trukatu eta jarduera-programak prestatzeko, eta hura, hasiera batean, txandaka | UNDÉCIMA: Se establecerá al menos un encuentro anual que, de entrada, se celebrará de manera alternativa en Perú y en Euskadi, para el seguimiento, intercambio de |

| | |
|---|---|
| egingo da Perun eta Euskadin. | información y elaboración de programas de actuación. |
| HAMABIGARRENA: Cuskoko Udal Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta Agirre Lehendakaria Center-en arteko lankidetza-protokolo hau Eusko Jaurlaritzak onetsi beharko du. Alde horretatik, behin betiko onartzeko izapidean izan daitezkeen aldaketak baztertu gabe izenpetzen da lankidetza-protokolo hau. Aldeek hartutako konpromisoak Eusko Jaurlaritzak Lankidetza Protokoloa onartu ondoren jarriko dira indarrean, bai eta, Cuskoko Udal Gobernuaren kasuan, ebazpen egokia eman ondoren ere. | DUODÉCIMA: El presente Protocolo de Colaboración entre el Gobierno Municipal de Cusco, el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) y Agirre Lehendakaria Center deberá ser aprobado por el Gobierno Vasco. En ese sentido, el presente Protocolo de Colaboración se suscribe sin perjuicio de las modificaciones a que hubiese lugar en el trámite de aprobación definitiva del mismo. Los compromisos adquiridos por las partes entrarán en vigor tras la aprobación del Protocolo de Colaboración por el Gobierno Vasco y tras la emisión de la respectiva resolución en el caso del Gobierno Municipal de Cusco. |
| HAMAHIRUGARRENA: Adostasunaren adierazgarri, hitzez hitz berdinak diren zortzi (8) ale sinatu dira, haietako bi alde bakoitzaren esku geratu direlarik, Cuscon, 2015eko maiatzaren 28an. | DECIMOTERCERA: En prueba de conformidad, se firman ocho (8) ejemplares de un mismo tenor, quedando dos en poder de cada parte, en Cusco a 28 de mayo de 2015. |

| | |
|---|---|
| **Patxi Baztarrika Galparsoro**<br>Hizkuntza Politikarako sailburuordea<br>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila<br>Eusko Jaurlaritza<br>Viceconsejero de Política Lingüística<br>Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura<br>Gobierno Vasco | **Carlos Moscoso Perea**<br>Cuscoko Udal Gobernuko alkatea<br>Alcalde del Gobierno Municipal de Cusco |
| **Nekane Balluerka Lasa**<br>Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea<br>EHU<br>Euskal Herriko Unibertsitatea<br>Vicerrectora de Estudios de Posgrado y Relaciones Internacionales<br>UPV/EHU<br>Universidad del País Vasco<br>10.07.15 | **Juan José Ibarretxe Markuartu**<br>Agirre Lehendakaria Center-eko zuzendaria<br>Director<br>Agirre Lehendakaria Center<br>2015. VI. 9 |